

**DEBABARRENEKO EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO-SISTEMA.
TOKIAN TOKIKO KAZETARITZA-GENERO ETA GAIEN
ANALISIA 2000-2004 BITARTEAN**

**(ETA KITTO!, PIL-PILEAN, BARREN, BERRIKETAN, KALAPUTXI
ETA DROGTENITTURRI)**

Tesiaren egilea: Alazne Aiestaran Yarza

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Kazetaritza

Tesi-zuzendaria: Jose Inazio Basterretxea Polo

Tesiaren laburpena:

Lan honetan, 2000-2004 bitartean Debabarrena eskualdean euskara hutsez argitaratzen diren ...*eta kitto!* Eibarko astekaria, *Pil-pilean* Sorluzeko hamabostekaria, *Barren* Elgoibarko astekaria, *Berriketan* Debako hilabetekaria, *Kalaputxi* Mutrikuko hilabetekaria eta *Drogetenitturri* Ermua eta Mallabiko hilabetekariaren kazetaritza-genero eta gaiak aztertu dira.

Debabarreko esperientzia eta errealitateak aztertu eta islatzea izan da tesiaren helburua, herri-prentsan hogeituro urteko ibilbidea duen eskualdeko euskarazko komunikazio-sistema aztertzeke baitzegoen.

Azterketa kualitatiboan eta azterketa kuantitatiboan oinarrituz, sei aldizkariaren izaera definitzen duten ezaugarri nagusiak bildu dira, edukiak eta profesionalizatzeko-maila kontuan hartuz. Metodo kualitatibo interpretatzaileen baitan, 5 elkarrizketa sakon egin dira, kazetarako eguneroko errealitatea sakonago ezagutzeko eta azterketa kuantitatibotik lortutako emaitzak modu egokian interpretatu ahal izateko. Metodo kualitatiboaren artean, eduki-analisia erabili da herri-aldizkarietako edukiak aztertzeke. Ikerketa egiteko lagina 318 aldizkarik osatu dute, eta, orotara, 12.226 item kodifikatu dira.

2000-2004 bitartean agerkariek kaleratu zituzten kazetaritza-genero eta gaien deskribapen zehatza egin da: lan-taldearen profesionalizatzeko nolakoa den definitu da langileen militantzia kontuan hartuz, agerkariek duten kalitatea zein den eta nola hobetu daitekeen aztertu da, aldizkariaren ahuleziak eta indarguneak zeintzuk diren jaso da, eta azkenik, etorkizuneko bidea jorrazteko proposamenak batu dira.

Alde batetik, informazio-, zerbitzu- eta iritzi-aldizkariak dira Debabarreneko komunikazio-sare euskalduna osatzen dutenak. Gizarte-gaiak, kultura eta kirola dira aldizkariaren gaitegiaren ardatz nagusia, eta herritarrak dira agerkarietako protagonista nagusiak.

Bestalde, argitalpenetan soldatapeko edo borondatezko lan-taldearen bereizketa eginez gero, eta langileen prestakuntza-maila aintzat hartuta, hiru

aldizkari mota identifikatu dira Debarreneko komunikazio-sisteman: aldizkari profesionalak, aldizkari erdi profesionalak, eta langile profesionalik gabe funtzionatzen duten aldizkariak. Agerkari bakoitzean ari den lan-taldearen egiturak kazeta bakoitzaren edukia baldintzatu eta determinatzen du.

Etorkizunean profesionaltasunez aritzeko, oro har, Debarreneko komunikazio-sistema berrantolatu beharra dagoela erakusten dute emaitzek. Zenbait aldizkaritan dagoen gehiegizko militantzia gainditzea ezinbestekoa da, kalitatean irabazteko, produktuak gaurkotzeko, lan-baldintzak hobetzeko, eta denbora eta baliabide ekonomikoak optimizatzeko.